

## BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA  
OGASUN ETA FINANTZA SAILA

### 2164

*AGINDUA, 2014ko apirilaren 29koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena eta Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoaren kontratazio-mahaiak eratzen dituen 2010eko maiatzaren 19ko Agindua.*

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2010eko maiatzaren 19ko Aginduaren bidez, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoaren kontratazio-mahaiak eratu ziren.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua indarrean jartzeak berekin ekarri du lehengo Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren antolamendua eta izena aldatzea. Izan ere, sail horrek bere eskumenen artean honako hauek bereganatu ditu: etxebizitza, arkitektura, eraikuntza, eraikuntzen iraunkortasun eta kalitatea, eta irisgarritasunaren sustapena. Eskumen horiek guztiak, orain arte, beste sail bati edo batzuei esleitura zeuden.

Eusko Jaurlaritzaren sailen berregituratzeak –aipatu dekretuaren bidez eginak– berekin ekarri zuen egituraketa organiko berri bat ematea sail berriari, hau da, berregituraketa horretatik sortutako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari. Egituraketa hori apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuaren bidez gauzatu zen, eta 2010eko maiatzaren 19ko Aginduan sakontzen du; izan ere, agindu hori egokitu beharra dago sail berria arautzen duten eskumen-arlo berrietara eta egitura organiko eta funtzionalera.

Lehenago aipatutako arrazoiengatik egin beharreko aldaketek eragina dute Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren kontratazio-mahaiaren eraketan, zeina arautu baitzen 2010eko maiatzaren 19ko Aginduaren 1. artikuluan bidez, eta eragina dute, halaber, agindu horren 3. artikuluan, hor ageri den sailaren izena aldatzeari dagokionez bakarrik.

Ondorioz, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak alde aurretik horri buruzko txostena eman eta gero, honako hau

#### XEDATZEN DUGU:

Artikulu bakarra.– Aldatu egiten dira Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2010eko maiatzaren 19ko Aginduaren 1. eta 3. artikulua. Agindu horren bidez, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoaren kontratazio-mahaiak eratu ziren.

A) «1. artikulua.– Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Kontratazio Mahaia.

1.– Zerbitzu Zuzendaritzari atxikia, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Kontratazio Mahaia sortu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Kontratazio Erregimenari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 7. eta 5. artikuluetan, hurrenez hurren, aurreikusitako funtzioak

betetzeko eta bertan jasotako jardun-eremuarekin, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren kontrataziopeko espedienteei dagokienez.

2.– Kontratazio Mahaiko kideak honako hauek izango dira:

a) Presidentea: Sailaren Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna. Postua hutsik dagoenean, arduraduna azaltzen ez denean edota gaixorik dagoenean, edo legezko beste arrazoiren bat iza-nez gero, Sailaren Aholkularitza Juridikoaren arduradunak ordezkatu du.

b) Kontratua sustatu duen sailaren Zuzendaritzaren ordezkari bat.

c) Bokal-aholkulari juridiko bat: zuzenbidean lizentziatua, eta Zerbitzu Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoari atxikia.

d) Hiru bokal: bat, Kontrol Ekonomikoko Bulegokoa; beste bat, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzakoa; eta, beste bat, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzakoa; azken hori ondasun eta zerbitzu informatikoei buruzko espedienteen kasuan baino ez. Bokalak dagozkien titularrek izendatuko dituzte.

e) Idazkaria: Zerbitzu Zuzendaritzaren kontratazio-arduraduna; hitza izango du, baina botorik ez. Postua hutsik dagoenean, arduraduna etortzen ez denean edota gaixorik dagoenean, edo beste kausa legal baten kasuan, haren ordezkari Zerbitzu Zuzendaritzako Kontratazio zerbitzuko teknikari batek jardungo du.»

B) «3. artikulua.– Ordezkapenen erregimena.

Ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 6.2 artikulua lehengo paragrafoan eta 6.3 artikuluan aipatu ez diren Kontratazio Mahaietako kideei dagokienez, modu singularrean egin ez diren izendapenak eta agindu honetan aurreikusi ez diren ordezkapenak Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak eta Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoaren zuzendariak erabakiko dituzte, bakoitzak dagokion eskumen-eremuaren barruan. Izendapen horiek egitean, izendatutako pertsonen arteko ahal den aldaketa gutxien egitea zainduko da, eta espedienteen jasoko dira haien izenak.»

## AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 29a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,  
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.

Ogasun eta Finantzaketako sailburua,  
RICARDO GATZAGAETXEBARRIA BASTIDA.